

2018KO EKAINEN EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. bi ordu gehitu ordu ofiziala kalkulatzeko)

Poloetan kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 0 Km/h

Ekuadorean kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.668 Km/h

Donostian kokatutako edozein punturen batzbesteko abiadura luraren ardatzarekiko: 1.220 Km/h

BEHAKETA PROPOSAMENAK

- Begi hutsez:

- Hilaren 2an, 13:00an, Perseoko Algol izar aldakorraren distira minimoa. Magnitudea 3,3tik gertu. Hilaren 5an, 8an, 11an, 14an, 16an, 19an, 22an, 25an eta 28an izango dira.

-Hilaren 5an, 07:00etan, Eta Aquilae izar zeifeidarraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Hilaren 12an, 19an eta 26an izango dira beste maximoak.

- Hilaren 6an, 04:00an, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa. Magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Hilaren 11an, 16an, 22an eta 27an izango dira beste maximoak.

- Prismatikoekin edo teleskopioarekin:

-Hilaren 26an, 21:00tan Jupiterren sateliteak ikusi al izango dira berezko ordenean: Io, Europa, Ganimedes, eta Calisto, planetaren ekialdean

ILARGIA EKAINEN (Lurrarekiko orbita-abiadura 1km/s = 3.600km/ordu)

01 00:53tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 1,6^{ra}.

02 16:35tan, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 405.317 km (aurreko perigeoan baino 41.541 km gehiago).

03 10:10tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 3,1^{ra}.

03 12:38tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

06 18:32tan, Ilbehera.

09 librazio minimoa longitudean ($l = -7,4^\circ$). Terminadoretik gertu dauden akzidenteak ikusteko aukera aproposa.

11 Librazio maximoa latitudean ($l = 6,7^\circ$). Grimaldi kraterra ikusi ahal izango dugu.

12 07:06tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Pleyadeekin, 8,8^{ra}.

12 23:15tan, konjuntzio geozentrikoan Tauroko Aldebaran izarrarekin, 1,2^{ra}.

13 19:43tan, Ilberria.

14 22:53tan, Perigeotik pasatuko da, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 359.503 km (aurreko apogeoan baino 45.814 km gutxiago).

16 12:14tan, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 2,3^{ra}.

16 17:50tan, Goranzko nodotik pasatuko da.

18 08:49tan, konjuntzio geozentrikoan Leoko Regulo izarrarekin, 1,6^{ra}.

20 10:51tan, Ilgora.

21 Librazio maximoa longitudean ($l = 6,7^\circ$). Platon eta gertu dauden veste kraterrak ikusi ahal izango dira.

22 08:12tan, konjuntzio geozentrikoan Virgoko Spica izarrarekin, 7,1^{ra}.

23 librazio minimoa latitudean ($l = -6,7^\circ$).

23 21:11tan, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin, 4^{ra}.

26 00:07tan, konjuntzio geozentrikoan Escorpioko Antares izarrarekin, 8,9^{ra}.

28 03:34tan, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 1,8^{ra}.

28 04:53tan, Asteroideen Ilbetea, (Guillaume Cannat-ek proposatutako izena) ekainaren 30an asteroideen egun internazionala delako, Tunguska-ko bolidoaren ezstandaren oroitzapenean (1908).

30 02:43tan, Apogeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 406.061 km (aurreko perigeoan baino 46.558 km gehiago).

30 16:45tan, beheranzko nodotik pasatuko da.

30 23:10tan, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 4,7^{ra}.

PLANETAK EKAINEN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 km/h)

Merkurio (Arratsalde amaieran ikusiko dugu hilaren 12tik aurrera) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Goi konjuntzioan hilaren 6an, 12tik Aurrera ikusi ahal izango dugu, eguzkia jarri eta ordu erdira, mendebalde ipar-mendebaldeko zeruertzean. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 4h 18m eta deklinazioa 21^o izango da, eta hilaren 30an Igoera zuzena 8h 15m eta deklinazioa 21^o. Hilabetea Tauron hasi eta Geminisera pasako da, Cancerrren amaitzeko. Magnitudea -1,7tik 0,2ra jetsiko da.

Artizarra (arratsalde amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Eguzkia jarri eta bi ordu t'erdira ezkutatu da hilabete osoan zehar. Ekliptikaren inklinazioa dela eta, zeruertzetik grado gutxira geratu da. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 7h 10m eta deklinazioa 24° izango da, eta hilaren 30an Igoera zuzena 9h 26m eta deklinazioa 16°. Hilabetea Geminisen hasi eta Cancerrera pasako da, hilaren amaieran Leora pasatzeko. Magnitudea -4an mantenduko da.

Marte (Gauaren bigarren erdialdian ikusiko dugu) orbita-abiadura 86.760 Km/h

Ekialdeko zeruertzetik azalduko da, eguzkia jarri eta lau ordu hilaren 1an eta bi ordu beranduago hilaren 30an. Erretrogradazio kiribila hilaren 28an hasiko da. Batzbeste 1,1 milloi km eguneko gerturaz jarraitzen dugu. Uztailaren 27an, oposizioan, 57 milloi Km-tara aurkituko gara. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 20h 40m eta deklinazioa -21° izango da, eta hilaren 30an Igoera zuzena 20h 52m eta deklinazioa -22°. Hilabetea osoa Caprikornion emango du. Magnitudea -1,6tik -2,3ra pasako da.

Jupiter (ia Gaua osoan zehar ikusiko dugu) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Hilaren 1an meridianotik 30°ra aurkituko dugu gauaren hasieran, eta bost ordu beranduago ezkutatu da mendebalde hego-mendebaldetik. Egoera hau okertuz joango da hila Aurrera doan elean. Koordinatuak, hilaren 1an Igoera zuzena 14h 52m eta deklinazioa -15° izango da, eta hilaren 30an Igoera zuzena 14h 45m eta deklinazioa -15°. Hilabete osoa Libran emango du. Magnitudea apur bat jetsiko da -2,4tik -2,3ra.

Saturno (Gau osoan zehar ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 34.560 Km/h

Oposizioan hilaren 27an. Hego-ekialdeko zeruertzetik azalduko da ia hilabete osoan. Koordinatuak aldatu egingo dira, hilaren 1an Igoera zuzena 18h 32m eta deklinazioa -22° izango da, eta hilaren 30an Igoera zuzena 18h 24m eta deklinazioa -22°. Sagitarioren izarren artean aurkituko dugu. Magnitudea 0,1tik 0,0ra igoko da.

Eraztunen inklinazioa 25,7°tik 26,1°ra pasako da hilaren zehar.

Hilaren 06an 20:46an, Titan elongaziorik handiengan planetatik mendebaldera.

Hilaren 14an 18:12an, Titan elongaziorik handiengan planetatik ekialdera.

Hilaren 22an 17:54an, Titan elongaziorik handiengan planetatik mendebaldera.

Hilaren 30an 15:30an, Titan elongaziorik handiengan planetatik ekialdera.

Urano (hilabete honetan ezin izango dugu ikusi) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Ekliptikaren inklinazioa dela eta, ez da behatzeko aukerarik izango. Igoera zuzena 2h, deklinazioa 11°. Hilabete osoa Ariesen emango du. Magnitudea 5,9tik 5,8ra pasako da.

Neptuno (Gauaren amaieran ikusi ahal izango dugu) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Ekialde hego-ekialdeko zeruertzean aurkituko dugu gauaren amaieran, baina zeruertzetik 15°ra besterik ez. Hilaren 19an erretrogradazio mogimendua hasiko du. Igoera zuzena 23h, deklinazioa -6°. Hilabete osoa Acuarion emango du. Magnitudea 7,9an mantenduko da.

EKAINEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

- Hilaren 1ean, ostirala, eguerdian, 2.458.271 egun juliotarra hasiko da.

- Egunak 15 ordu eta 10 minutuko iraupena du hilaren 1ean, eta 15 ordu eta 21 minutukoa hilaren 30an. Hilaren 10 eta 20 bitarte, aurtengo egun argitze goiztiarrenak izango dira (4:27 UT), eta hilaren 20tik Uztaileko 3 arte, iluntze berantiarrenak (21:52 UT). Hilaren 21^a egun argi luzeenaren eguna izango da, 15h 25m, hala ere, Hilaren 17tik 24ra, minutu bakarrek diferentzia egongo da egun argiaren iraupenean.

- Hilaren 9an, lurak 5,3 urte periodoko "73P schwassmann-wachmann" kometak utzitako ahuts lorratzaren zentrua zeharkatzen du, ondorioz Tau Herculidas izeneko izar iheskorren maximoa sortuz.

- Hilaren 13an, 12:00tan, denboraren ekuazioa nulua da.

- Hilaren 14an Hegiraren 1439. Urteko Ramadam hilabetearen amaiera teorikoki. Data ofiziala musulmandar botere erlijiosoan aukeratu dago.

- Hilaren 19an, Vesta asteroidea oposizioan aurkituko da, eta magnitudea 5,3koa izango da. Zeru ilun eta garbi batean, Sagitario konstelazioan aurkitu ahal izango dugu, Saturnotik 9°ra mendebalde ipar-mendebalderantz.

- Hilaren 21an, 10:07tan, eguzkiak bere deklinazio boreal maximoa iritsiko da aurten 23° 26' 7". Uda hasiko da gure hemisferioan, gaur egun urtarorik luzeena, 93,65 egun.

- Hilaren 21an, astrologiaren arabera, eguzkia Cancer konstelazioan sartuko da (60°). Zodiakoaren zeruko mugek eta izen bera daramaten zodiakoko konstelazioak ez dira berdinak.

- Hilaren 21an, 19:53tan, eguzkia itxuraz Geminis konstelazioan sartuko da (90,39°).

- Hilaren 27an, lurak 6,32 urte periodoko "7P Pons-Winnecke" kometak utzitako ahuts lorratzaren zentrua zeharkatzen du. Bootidas izeneko izar iheskorren maximoa sortuz.